

Intxaurrondo


IRUTXULO

azken urteotan bezalaxe, aurten ere sukaldaritzaren ikastaroa egingo du Larrotxene kultur etxeak. Ikastaro honetan sukaldaritzaren oinarriak irakatsiko ditu Jokin de Agirre Maria Cristina hoteleko sukaldari nagusi ohiak. Klaseak azaroaren 9an hasi eta abenduaren 14an amaituko dira eta astearte eta ostegunero egingo dira, 16.30etatik 18.30etara. Izena emateko epea zabalik dago honezkerok eta datorren asteazkenean, hilak 8, bukatuko da. Ikastaroak 5.500 pezeta balio ditu, 4.125 langa-

Eltzeetako errege-erreginak

betu eta erretiratuentzat.

Jon Etkezarraga Larrotxeneko arduradunak azaldu digunez, *“Donostian eskaintza handia dago sukaldaritzaren ikastaroetan. Hala ere, gure berezitasunik handiena Euskal Herriko Gastronomia Etxearen babesa da”*. Orain arte ikastaroa euskaraz egin den arren, oraingo honetan gazteleraz izango da. *“Irakasle euskalduna aurkitzeko arazoak izan ditugu, baina hala ere, helburua urtero ikastaroa euskaraz egitea da”*, adierazi digu Etkezarragak. Iaz hogeitabat lagunek parte hartu zuten ikastaro honetan.



Mota guztietako jakiak prestatuko dira Larrotxeneko ikastaroan.

Parte Zaharra


IRUTXULO

Santa Maria elizako aldaire nagusiko erretaula oso egoera kaskarrean dago, pipiak jota. Horregatik, aldarmioak jarri eta zaharbertzeari ekin diote.

berritze lanek luze joko dute eta beraz, datorren urteko martxo bukaerara arte ez dituzte aldarmioak kenduko.

Erretaulak pitzadurak ditu eta zenbait pieza falta zaizkio. Parrokiak egoeraren berri eman zien Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikariei, eta hauek azterketa egin

Santa Maria pipiaren aurka



Santa Mariako erretaula kultur monumentutzat du Eusko Jaurlaritzak

ondoren, zaharbertze proiektua egin zuten. Egitasmoa, azkenik, Artelan enpresari agindu zitzaion. Aurrekon-

tua, guztira, 17,7 milioi pezetakoa da eta Santa Maria basilikako parrokiak ordaindu beharko du.

Aldaire nagusiko erretaula Diego de Villanuevak egin zuen, XVIII. mendean. Bertan Goienetxe abizeneko maisu nafar batek egindako lau koadro ditugu. San Sebastianen martirioa erakusten duen koadroa Luis Bocciak egin zuen 1819an. Lehen bazegoen beste mihise bat, baina 1813an Napoleonen aurkako ejerzitoak hirian sartu zirenean, lapurtu edo suntsitu egin zuten. Eusko Jaurlaritzak Gipuzkoako 23 erretaula ditu kultur monumentuen zerrendan eta haien artean dugu Santa Maria basilikakoa.

Atarian
San Telmoko Atarian erakusketa azaroaren 12ra arte egongo da zabalik. Joan ez bazarete, aukera duzue oraindik.